

OIALDUN ONTZIAN

Oialdun ontzian zoaz
ederrik, ene maite;
alan be, ur gaiñez berezi
ez, geiegi etzaite.

Ain urrutitik ez dakit,
ez dakit, izar izun,
nire antsiaren otsa
artzen ete daustazun.

Lar eguratsia zara
aruntz beti, bai, aruntz;
zatoz gaur, antxeta bizkor,
ni naukazun ertzeruntz.

Ez, arren, bota aingurarik,
itxi azke oialak...
Zabala dozu itxasoa,
euri antza dau goiak.

Jolasle zabiltz txairo,
baiña, eneño!, ugarriz
daukazu azpia osoz,
zu atzi nairik gutziz.

Kaio lez eda egoak,
ta erdu ur ertzera,
gozarturik egaren
zidarrezko ots leunera.

Zugatzak izarra beste
opa zaitu biotzak;
biok, bizitza abestuz,
ux daiguzan izotzak.

Zatoz, bai, etzaitez muker,
zatorkit biotzera...
bi-biok bizi gaitazan
barne arnas batera.

ZARPAILDUA

Min dot, ai!, atzotik, min errai azpian:
begiai darie negar-ur garratza,
ai-eneka, intziraz aitu yat biotza...
Ta zugaitik, ele, nozu ler-zorian.

Griñak ixil, bare; arrats-il otzana...
Ez dot, ez, oraingoz beztunik barrun:
txori, aize, argi dodazala lagun,
ames-zale nabil zelai musker barna.

Zer dakust aurrean? Jauregi zar urdin!
Izuak arturik, mozkortua iduri,
ixil-zirkinpean ara noa urduri:
ez nik iñoiz izan alako jakin-min!

Ezker-eskoi so, ta eder-apain utsez;
oro sasi ta lar, joanaren usain,
oro aztarna zar, ontzak orrua gain;
ereiñotza soilki oraindik orriez.

Sutondoan, noski, ba ete berorik?
Zalantza bizian, barnera nadin sar...
An be, baiña, kirats, erdoi ta saguzar,
nainun ugari da ekaitz mozkin baitzik.

Aldi: or ire lan, dana zar-txilio!
 Ai, zein itxusia asaben egoitza!
 Or, bai, gizonaren zabarkeri latza...!
 Nok leiken barriri lenargia ixio!

Onela jardunik, au zoragarria!,
 Andra bat aurrean goibel yat agertu:
 zar dirudi soñez, biotz-astun, laru,
 naita lenago izan bakana, bitxia.

«Ez bildurrik —diñost—, Euskera bait-nozu,
 zuen izkuntza zar, minbera, guria,
 semeen itxikeriz zarpaillez josia;
 zuk, beintzat, ez nagizu osoan mirrindu.

Zoaz ortik zear, ta Ama miña iragar,
 betoz ni goratzen aldraka semeak,
 zutitu begiez nire orma zarrak,
 lena bizitara ekarriz poz-dardar».

Samur nau ondoren besotarateratu,
 ta, nigan jarririk ezpan biak bero,
 bere barren sua niri ezarteko,
 goi-arnas leguna bizi daust lurrundu.

Ta gero, nire izar dizditsu sotilla,
 arin yat gordea orma zar ostein.
 Ene! Sua ñirñir betsain aratzean,
 baiña susmoa nik betikoz ete illa!

Min dot, arrezkero, min errai azpian,
 ta danak nai neukez min onen zatiki;
 zuzper, euskalduna, ta Amagaz erruki,
 sugarrik ba'dozu oindiño bizian.

UR-SUGEA

Arraunka ebillen Peru
 Laida'ko ezpondetan,
 agur ereska zitula
 zii-bedarrak bidean.

Arrats-beran, ito-larri,
 suge bat buru tente
 ur barrena etorkion
 igerika zan beste.

—Lagun zakidaz —zirautson—,
 ezin bait dot geiago;
 ur ibilliak naroa
 gero ta zakarrago.

—Ene, baiña, zer dala-ta?
 Ez ba'neu arriskurik...
 Zital bat zelan babestu?
 Gaixo, ez neuke senik!

—Zitala nozu eristen?
 Ez izan *orren* izurik.
 Erensugeok uretan
 ez daukagu pozoirik.

—Ez, e? —arrantzaleak ari—.
 Indarraren ekiñez
 ezin uretan usiki,
 baiña andik kanpora, ez?

—Xaloa nozu, ez dautzut
 gatxik egingo. Siñetsi
 —oiu egian sugeak,
 zintzur-antsika makets.

* * *